



m onografikoa

museoak



EUSKADIKO MUSEOAK ETA BILDUMA MUSEOGRAFIKOAK

ESTADÍSTIKA TXOSTENA 2004

(L A B U R P E N A)

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	1
Fitxa sinoptikoa	2
I. Helburuak	4
II. Egitura eta metodologia	5
III. Eduki nagusiak	6
1. Egungo museo eskaintzaren testuingurua	6
1.1. Museo eta bildumen tipologia	6
1.2. Titulartasuna	6
1.3. Kudeaketa-modalitatea	6
2. Ezaugarri nagusiak	7
2.1. Antzinasuna	7
2.2. Patronatuak eta Museoaren Lagunen Elkartek	7
3. Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua	8
3.1. Eraikinaren ezaugarriak	8
3.2. Zerbitzuak eta ekipamendua	9
3.3. Teknologia berriak	9

4. Sarrera.....	10
4.1. Jendaurreko irekiera-modalitatea.....	10
4.2. Sarrera-mota.....	11
4.3. Doako sarrera edo tarifadunak.....	11
5. Bisitariak.....	11
6. Erakusketak eta beste hainbat jarduera.....	12
6.1. Erakusketak eta beste hainbat jarduera.....	12
6.2. Argitalpenak.....	13
7. Giza baliabideak.....	13
7.1. Lan-harremana.....	13
7.2. Lanbide-kategoria.....	14
7.3. Bekadunak eta praktiketako ikasleak.....	14
8. Kontratutako zerbitzuak.....	14

AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den dokumentuak, AIC Gestión de Capital Intelectual, S.A. enpresak burututako eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak bultzatutako *Euskadiko museoak eta bilduma museografikoak. Estatistika txostena 2004* lanaren laburpen sintetiko bat jasotzen du.

Estatistika txosten honen aurrekaria, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2002an eginiko txostena da.

Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoetan kontsulta daiteke eta ondoko helbidean eska daiteke: kulturabehatokia@ej-gv.es

FITXA SINOPTIKOA (I)

DESKRIBAPENA	
Azterlanaren izenburua	Euskadiko museoak eta bilduma museografikoak. Estatistika txostena 2004
Burutu duen erakundea	AIC, Gestión de Capital Intelectual, S.A.
Orrialde kopurua	62
Burutu zen urtea	2005
Inplikaturako sektorea(k)	Museoak
Aurrekariak	Museoei buruzko estatistikak 2002. urteaz geroztik burutzen dira. Txosten hau bildumako bigarrena da, bi urtez behin egiten baita, Kulturako Ministerioak sustatzen dituen estatistikekin batera.
Helburuak	Sektorearekin erlazionaturiko alderdi nagusien ikuspegia azaldu museo eta bildumek EAEko kultura eskaintzan eta gizartean oro har duten eginkizuna aztertzeko.
METODOLOGIA	
Ikerketa-metodologia	Kuantitatiboa: Museoen esparruari buruzko ikuspegia azaldu datu estatistikoez baliatuz. Bi urtez behin burutzen da inkesta. Informazioaren trataera Kulturako Ministerioak eskaintzen duen informatika-aplikazioaren bidez egiten da
Parte-hartzea	Lurralde Historikoetako 43 museo eta bilduma (une horretan EAEn erroldatuta zeuden 66 museoetatik). Aztertutako aldagai baikoitzaren inguruan lortu den informazioa ezberdina da. Hori dela eta, txostenean azaltzen diren grafiko eta taulak eraikitzeke erabili den informazio-oinarria zein den adierazi da.
Informazioaren ezaugarriak	<p>Adierazleak: 46</p> <p>Informazioa sailkatzeko kategoriak: Txostenak dituen kapituluekin bat dator. Testuinguruan, Kultura Zuzendaritzak 66 museo eta bildumen tipologia, titulartasuna eta kudeaketa motari buruz emandako informazioa eskaintzen da. Ezaugarri oro-korrei dagokien atalean antzinatasunari, patronatuei edo elakarteei buruzko informazioa jasotzen da. Azpiegiturei, zerbitzuei eta ekipamenduari dagozkien elementuak teknologia berriei buruzko atal batekin osatzen dira. Sarrerari dagokion atalak, irekiera modalitatea, sarrera mota eta doakotasunari buruzko informazioa barne hartzen du. Bestalde, bisitariei, erakusketei eta argitalpenei buruzko informazioa eskaintzen du. Amaitzeko, giza-baliabideen ezaugarri nagusiak azaltzen dira lan-harremannen eta lanbide kategoriaren arabera eta bekadunik baduten ala ez kontuan hartuz.</p> <p>Datu-motak: : Zentsukoak</p> <p>Informazio iturri nagusiak: Kultura Ministerioaren aplikazioarekin Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindako inkestatik jasotako Museoek emandako informazioa.</p> <p>Datuen eguneratze maiztasuna: Bi urtean behin</p>

FITXA SINOPTIKOA (II)

EDUKI NAGUSIAK	
Egitura	Galdesorta jarraituz, ondorengo ataletan egituratuta dago: Museo eskaintza testuinguruan kokatzea, erakundeen ezaugarriak, azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua, sarrera, bisitariak, erakusketak, giza baliabideak eta kontratatutako zerbitzuak.
Ikuspegia	Informazioaren azterketa: Grafiko eta tauletan agertzen den informazio esanguratsuenaren irakurketa deskriptiboa egiten da
Baliabide bibliografikoak/ webgrafikoak	Ez
EMAITZEN ZABALKUNDEA	
Emaitzak jakinarazteko eta argitarazteko sistema/prozesua	Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoetan kontsulta daiteke eta ondoko helbidean eska daiteke: kulturabehatokia@ej-gv.es

I. HELBURUAK

Azterlanaren helburu nagusia museoen sektorearekin erlazionatutako alderdi nagusien ikuspegi orokorra ematea da. Zehazkiago, azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu, sarrera, bisitari-kopuru eta giza baliabideekin zerikusia duten gaiei buruz hitz egiten zaigu azterlanean.

Azterlan hau, beraz, bitarteko egokia da sektoreak gaur egun bizi duen egoera bere osotasunean ikusteko; gainera, egungo beharrak ezagutzeko eta, batez ere, museoek eta bildumek euskal kultur eskaintzan eta, eskuarki gizartean, betetzen duten rola aztertzeke balio digu. Eta museoen eta bildumen eskaintza lurraldeen arabera aztertu eta lortutako emaitzak barne hartu dira.

Azterlanaren helburu nagusia museoen sektorearekin erlazionatutako alderdi nagusien ikuspegi orokorra ematea da. Zehazkiago, azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu, sarrera, bisitari-kopuru eta giza baliabideekin zerikusia duten gaiei buruz hitz egiten zaigu azterlanean

II. EGITURA ETA METODOLOGIA

Txosten honetan 2004. urtean EAEko museoek eta museo-bildumek lortutako datuetatik abiatuta egin den azterketa estatistikoa barne hartu da. EAEko 43 museo eta bildumek parte-hartu dute. Guztizko kopuruak kontuan hartuta, erantzun-maila %65,1ekoa izan da.

Kapituluen egitura bat dator, neurri handi batean, ikerketan erabilitako galdeketaren atalekin. Besteak beste, honako alderdi hauek aztertu dira: erakundeen ezaugarri orokorrak, azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua, sarrera, erakundearen jardura, langileak eta, amaitzeko, kontratatutako zerbitzuak.

Aztertu diren aldagaiak dagokienez, informazioa lortzeko ez da oinarri bera erabili, hortaz, grafiko edo taula bakoitzean berau osatzeko erabilitako oinarria zehaztu da, hau da, galdetutako aldagaiaren erantzuna eman duen erakunde-kopurua adierazi da.

Museo-eskaintza kokatzen den testuinguru orokorra hobeto ezagutzeko, lehenengo atalean Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako informazioa adieraztea erabaki da. Oraingo honetan 66 museo eta bildumaren tipologia, titulartasun eta kudeaketa-modalitateari buruzko datuak eskaini dira.

Jatorrizko txostenaren eranskinean irakur daiteke estatistika honetan parte hartu duten museo eta bildumen zerrenda (1. eranskina) alde batetik eta, bestetik, inkestako galderak (2. eranskina).

Kapituluen egitura bat dator, neurri handi batean, ikerketan erabilitako galdeketaren atalekin. Besteak beste, honako alderdi hauek aztertu dira: erakundeen ezaugarri orokorrak, azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua, sarrera, erakundearen jardura, langileak eta, amaitzeko, kontratatutako zerbitzuak

III. EDUKI NAGUSIAK

1. EGUNGO MUSEO ESKAINTZAREN TESTUINGURUA

Lehenengo kapitulu honetan museo eta bildumen tipologia, titulartasuna eta kudeaketa-modalitatearen gaineko ikuspegi orokor bat islatu nahi izan da. Kapitulu osatzeko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako informazioa hartu da oinarrian¹.

1.1. Museo eta bildumen tipologia

Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmenki nagusitzen dira kultur ondarearen alor jakin batzuetan espezializatutako museoak (%22,7), etnografia eta antropologiarekin erlazionatutako museo-espazioak (%16,7) eta museo historikoak (%15,2).

Bestalde, tokiko museoen agerpen handia azpimarratu behar da; ondasun historikoen museoak dira, hala nola aztarnategi arkeologikoak, monumentuak, eta abar, aurkikuntza egin den lekuan bertan kokatutakoak, eta museo guztien %12,1 dira.

Gutxiago dira EAEn gai orokorrei buruzko museoak (%3), etxe-museoak (%3), arte ederren museoak (%3) eta museo arkeologikoak (%1,5).

Lurraldeka, Gipuzkoan kokatzen dira museo-espazio gehien: bertan daude EAEko museo-espazioen %42,4, eta gainerakoak Bizkaian eta Araban daude.

1.2. Titulartasuna

Titulartasun publikokoak dira euskal museo asko: 10 museoren artetik 6 hain zuzen. Erakunde pribatuen titulartasuneko museoak, bestalde, guztizkoaren %33,3 dira. Titulartasun pribatuko erakunde asko fundazioak dira (%36,4), nahiz eta gehienak zuzenbide pribatuko eta kapital publikoko erakundeak diren.

1.3. Kudeaketa-modalitatea

Bereziki azpimarragarria da erakunde pribatuen esku dagoela museo askoren kudeaketa (%54,5ek dute kudeaketa pribatua eta %43,9k publikoa). Kontrakoa gertatzen zen museo-erakundeen titulartasuna aztertzean.

1. Oinarria: 66 (EAEn erroldatutako museoak)

Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmenki nagusitzen dira kultur ondarearen alor jakin batzuetan espezializatutako museoak (%22,7), etnografia eta antropologiarekin erlazionatutako museo-espazioak (%16,7) eta museo historikoak (%15,2)

Kudeaketa pribatuaren zati handi bat fundazioei (%33,3) eta sozietateei (%25) dagokie; agerpen txikiagoa dute izaera pribatuko elkarteek (%13,9) eta pertsona bakar batek kudeatutako museoek (%11,1). Oso gutxi dira elizaren erakundeek kudeatutako museoak (%5,6).

Kudeaketa publikoari dagokionez, kontuan hartu behar da Toki Administrazioak kudeatzen dituela museo-espazio gehienak (kudeaketa publikoaren %89,7 Udalek, Aldundiek eta, neurri txikiago batean, Toki Administrazioiko beste mota bateko erakundeek egiten dute).

2. EZAUGARRI NAGUSIAK

Aurreko atalean museoaren sektorea gaur egungo testuinguruan kokatu eta gero, ondorengo lerroetan 2004an EAEn irekita egon diren museo eta bildumen ezaugarriak zehaztasun handiagoarekin deskribatu dira.

2.1. Antzintasuna

EAEko museo eta bildumen batez besteko antzintasuna 24,9 urtekoa da. Museoaren sektoreko zati handi bat berriki sortutako museoak direla esan daiteke; horrela, museo eta bildumen %75 inguru azken 25 urteetan sortu dira, eta horietatik %35,7 ez dira 10 urtera iristen. Haatik, 25 urtetik gorako antzintasuna duten museo ugari daude (11 zehazkiago, hain zuzen sektoreko %26,2).

Lurralde historikoen arabera, Araba da 25 urte baino gehiagoko museo gutxien dituen lurraldea: %21,4 dira Araban eta %42,9 Gipuzkoan eta Bizkaian. Haatik, Arabako museo-espazioen erdia 1979-1994 urteetan sortu dira, eta museo berriagoen kopurua (10 urte edo gutxiago) gainerako lurraldeetako kopuruen parekoa da.

Dena den, Araban kokatutako museo-espazioen batez besteko antzintasuna 23,2 urtetik beherakoa da (batez besteko orokorra baino ia 2 urte gutxiago). Ondoren sailkatu da Gipuzkoa, 24,1 urteko batez bestekoarekin, eta, azkenik, Bizkaia, batez besteko orokorra gainditu duen bakarra (2,4 urte gehiago). Bizkaian kokatu dira, haatik, 2003an eta 2004an sortu diren bi museoak.

2.2. Patronatuak eta Museoaren Lagunen Elkarteak

2004ko estatistikan barne hartu diren museo eta bildumen heren bat inguruk dute patronatua, eta laurden bat baino gehiagok dituzte lagunak elkarteak.

Aztertu diren museo-erakundearen tipologiari erreparatuz, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke. Gai orokorrekin, arte ederrekin edo arkeologiarekin erlazionatutako museo eta bilduma guztiek dituzte lagunak el-

EAEko museo eta bildumen batez besteko antzintasuna 24,9 urtekoa da. Museoaren sektoreko zati handi bat berriki sortutako museoak direla esan daiteke; horrela, museo eta bildumen %75 inguru azken 25 urteetan sortu dira, eta horietatik %35,7 ez dira 10 urtera iristen. Haatik, 25 urtetik gorako antzintasuna duten museo ugari daude (11 zehazkiago, hain zuzen sektoreko %26,2)

karteak. Aitzitik, ezin daiteke gauza bera esan tokiko museoen, museo etnografikoen, antropologikoen eta historikoen kasuan.

Patronatuek agerpen handiagoa dute, bestalde, arte garaikideko eta zientzia eta teknologiako museoen artean (mota horietako museoen %66,7k dute patronatuen laguntza). Aitzitik, ez da ohikoa tokiko museoek, etnografia eta antropologiari buruzkoek eta museo arkeologikoei patronatu baten babesa edukitzea.

Hedapen handiagoa dute museo eta bildumekin erlazionatutako patronatuek Bizkaian: 10 museo-erakundeen artean seik dute patronatua. Portzentaje horrek nabarmen egiten du behera Gipuzkoan (%26,7) eta, batez ere, Araban (%14,3). Bestalde, Bizkaian sortutako lagunaren elkarten kopurua zertxobait altuagoa da, gainerako lurraldeekiko alde esanguratsua ez bada ere.

3. AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUA

Atal honetan museoak eta bildumak kokatzen diren eraikinen ezaugarri nagusien azterketa egin da; halaber, museoek eta bildumek gaur egun eskaintzen dituzten ekipamendu eta zerbitzuen ezaugarri nagusiak aztertu dira. Garrantzi berezia eman zaio informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien azterketari, gaur egun museo-jardueran duten garrantzia dela eta.

3.1. Eraikinaren ezaugarriak

Museoak eta bildumak kokatzen diren eraikinen batez besteko adina 223 urtekoa da. Hala ere, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke lurraldeen arabera: Gipuzkoako eraikinak (258,5 urte) Araban kokatutakoak (211,1 urte) eta Bizkaian kokatutakoak (198,5 urte) baino zaharragoak dira.

Eraikin guztien artean %75 baino gehiagoren kasuan zaharberritze-lanak egin dira 1990 ondoren, eta %31ren kasuan 2000. urtearen ondoren.

Jatorrian bestelako erabilera zuten eraikinetan daude museo eta bilduma asko eta asko, baina eraikinak egokitu egiten dituzte museo bezala erabiltzeko (10etik 6 baino gehiago). Eraikinen artean %23,8 soilik daude museo-erabilera emateko berriaz sortutako eraikinetan, eta gainerako %14,3ren kasuan bi aukerak ikus daitezke.

Bestalde, arte garaikideko museoaren guztizko azalera erabilgarria gainerako museo-espazioena baino handiagoa da (19.167 m² batez beste). Bigarren lekuan sailkatu dira arte ederren museoak (8.304 m²).

Gai orokorrekin, arte ederrekin edo arkeologiarekin erlazionatutako museo eta bilduma guztiek dituzte lagunaren elkarteak. Aitzitik, ezin daiteke gauza bera esan tokiko museoen, museo etnografikoen, antropologikoen eta historikoen kasuan

3.2. Zerbitzuak eta ekipamendua

10 museo eta bildumen artetik 8 inguruk bisita gidatuak eskaintzen dituzte euren instalazioetara iristen diren bisitariarentzat. 10etik zazpi dute liburutegia eta %53,5ek jarduera didaktikoak egiteko espazioak. %27,9k dituzte lanak zaharberritzeko tailerrak.

Eskaintza osatzeko eskaintzen diren bestelako zerbitzuei dagokienez, %60,5ek dituzte dendak edo liburu-dendak, %16,3k dute kafetegia eta %32,6k aparkaleku publikoa.

Azkenik, EAEko museo eta bildumen %62,8tan jarri dira ezintasunak dituzten pertsonentzako sarrerak. Zentzu horretan, esparruan indarrean dagoen araudiari jarraitu zaio (1994tik aurrera eraikitako eraikin ia guztiek dituzte ezintasunak dituzten pertsonentzako berariazko sarrerak).

3.3. Teknologia berriak

2004ko estatistikan jasotako datuek erakusten dutenez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ezarpen handia lortu dute EAEko museo eta bildumetan. Horrela, museo eta bildumen %93tan ordenagailuak erabiltzen dira eguneroko zereginetan.

Dena den, kasu askotan erabilera oso mugatua ematen zaio ordenagailuari, eta administrazioarekin zein informazioarekin erlazionatutako zereginetarako eta Internetera sartzeko bakarrik erabiltzen da. Ez da kontuan hartzen, esate baterako, funtsen inbentarioak egiteko ordenagailuari atera ahal zaion etekin handia (museoen %57,5ek bakarrik erabiltzen dituzte ordenagailuak xede horrekin).

Zentzu horretan, arte ederrei, arte garaikideari eta natur zientziei eta historiari buruzko museoak nagusi dira ordenagailuaren erabilera eta ezarpenean; administrazio zereginetarako eta informazioa emateko, edo Internetera sartzeko erabiltzeaz gain, datu-baseak erabiltzen dituzte funtsen inbentaria egiteko. Arkeologia edo etnografiako museoetan arestian aipatutako oinarriko erabilerak soilik egiten dituzte.

Bestalde, hamar museo eta bildumen artetik zortzik dute web-orria. Dena den, kasu honetan ere web-orriari ez zaio behar bezalako etekin ateratzen eta ohiko erabileretara mugatuta geratzen da; ez da berariazko museo-jardueretarako lanabesik eskaintzen. Museo eta bildumen %11,6tan bakarrik ematen da web-aren bidez funtsen inbentaria sartzeko aukera (hain zuzen: zientzia eta teknologia eta etnografia eta antropologiako bost museo, historiako bi museo eta museo espezializatu bat).

2004ko estatistikan jasotako datuek erakusten dutenez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ezarpen handia lortu dute EAEko museo eta bildumetan. Horrela, museo eta bildumen %93tan ordenagailuak erabiltzen dira eguneroko zereginetan

Web-orria bisitariari oinarrizko informazioa emateko erabiltzen da nagusiki (aztertutako kasuen %80). Museoaren eta bisitariaren arteko komunikazioa (museoak bisitariari eta bereziki bisitariak museoari) da bigarren erabilera nagusia aztertutako museo gehienek kasuan.

Online zerbitzuen eskaintza edo hezkuntza-jarduerak eskaintzen dituzte hamar museoren artetik bik. Web-aren bidez ikerketa zientifikoa egiteko aukera oso museo gutxitan eskaintzen da (%14,3).

Aztertutako museo-espazioen tipologiari erreparatuz, honako alderdi hauek azpimarra daitezke: arte garai-kide, zientzia eta teknologia eta historiako museo gehienek eta museo orokor gehienek dute web-orria. Bestalde, ezin daiteke ahaztu tokiko museoaren artean hedapen eta ezarpen handia lortu duela web-orriak, nahiz eta oraindik lan handia geratzen zaien teknologia berriak ezartzeko.

Museo edo bildumen tipologiaren arabera aldatu egiten da web-orriaren jatorrizko helburua eta, batez ere, ohi-koegiak ez diren jarduerak.

Esanak esan, tokiko museoak, kultur ondarearen alor jakin batzuetan espezializatutako museoak eta museo historikoak dira web-aren bidez hezkuntza-jarduerak eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten museo-erakunde bakarrak. Halaber, zientzia eta teknologiako museoetan hezkuntza-jarduerak garatzen dituzte, nahiz eta ez duten ikerketa zientifikoko jarduerarik garatzen; eta arte ederren museoetan ez dute hezkuntza-jarduerarik egiten baina bai ordea ikerketa-jarduerak. Aztertu diren gainerako tipologiaren kasuan ez da web-orriaren horrelako jarduerarik egiten.

Online zerbitzuen eskaintzak, amaitzeko, aukera ugari sor ditzake museo-sektorean, baina oraindik ez dago behar den bezala zabaldua.

4. SARRERA

Laugarren atal honetan museo eta bildumen jendaurreko irekiera-modalitateak aztertu dira (jarraitua edo aldi-roko irekiera), bai eta bisitariari eskainitako sarrera-mota eta tarifak ere (doakoa/ordainpekoa).

4.1. Jendaurreko irekiera-modalitatea

Ikerketan parte hartu duten museo eta bildumak irekita egoten dira modu jarraituan. Medikuntza eta Zientziaren Historia Museoa da urteko aldi batzuetan ixten duen bakarra (denbora-tarte jakin batzuetan bakarrik irekitzen da).

Horrela, beraz, hamar museo eta bildumaren artetik bederatzi 250 egun baino gehiago egoten dira irekita. Museo eta bildumen tipologiaren arabera, zientzia eta teknologiako museoak, tokikoak, museo etnografiko eta antropologikoak eta museo espezializatuak dira egun gutxien irekita egoten direnak.

Tokiko museoak, kultur ondarearen alor jakin batzuetan espezializatutako museoak eta museo historikoak dira web-aren bidez hezkuntza-jarduerak eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten museo-erakunde bakarrak

4.2. Sarrera-mota

Aztertutako museo eta bilduma gehienetan sarrera librea da, hau da, ez dago bisitariak (ikerlariak, taldeak, eta abar) mugatzen dituen museo-erakunderik.

Haatik, museo-espazio ugaritan bisita egin aurretik eskaera egin behar da (%62,8); %25,6tan bisitatzeko eskaera egin behar dute bisitari-taldeek, eta %37,2tan bisitari orok egin behar dute eskaera hori.

4.3. Doako sarrera edo tarifaduna

Inkestan parte hartu duten museo eta bildumen erdiek baino gehiagok ez diete sarrerarik kobratzen bisitariari. Sarrera kobratzen duten museoen artean, bestalde, tipologia desberdineko tarifak bereiz daitezke bisitariaren ezaugarrien arabera: sarrera bereziak, tarifa murriztuak, eta abar.

Taldeek, adineko pertsonak eta ikasleek ordaintzen dituzte tarifarik merkeenak: hamar museoaren artean zortzi inguruk eskaintzen dizkiete tarifa murriztuak aipatutako taldeei. Era berean, ezintasunak dituzten pertsonentzako edo tokiko biztanleentzako tarifa murriztuak eskaintzen dituzten museo-espazioak aurkituko ditugu (museoen %30 baino gehiago lehenengo kasuan eta %20 inguru bigarrenean).

5. BISITARIAK

Bizkaiak erakarri du bisitari gehien, hain zuzen EAeko guztizkoaren %54,8. Hori ulertzeko kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, Guggenheim Museoa bisitatzera jende asko etortzen dela (909.144 bisitari 2004an). Gipuzkoak bereganatu ditu bisitarien %30,9 eta Arabak %14,3.

Arte garaikideko museoak bisitatzen dituzte bisitarien %50 inguruk. Ondoren natur zientzia eta historiari buruzko museoak (%13,8), museo espezializatuak (%9,4), zientzia eta teknologiako museoak (%9,3) eta arte ederren museoak (%8,0) daude.

Lurralde historikoen araberrako azterketa zehatzago bat eginez, honako emaitza hauek lortu dira:

- Bizkaian Bilboko Guggenheim Museoa erakarri ditu bisitari gehien (Bizkaiko bisitari guztien %71,5 inguru). Gipuzkoan eta Araban, haatik, tipologia desberdineko museo eta bildumetan banatzen dira bisitariak.
- Adibidez, Gipuzkoan 2004an izandako bisitarien %41,9k Aquarium-a bisitatu dute, %29,4k zientzia eta teknologia museoak eta %12,8k arte garaikideko museoak (Chillida-Leku).
- Araban, amaitzeko, 2004an izandako bisitarien %42k baino gehiagok kultur ondarearen alor jakin batzuetan espezializatutako museoak bisitatu dituzte eta %27k Artium.

Bizkaiak erakarri du bisitari gehien, hain zuzen EAeko guztizkoaren %54,8. Hori ulertzeko kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, Guggenheim Museoa bisitatzera jende asko etortzen dela (909.144 bisitari 2004an). Gipuzkoak bereganatu ditu bisitarien %30,9 eta Arabak %14,3

- Ezin daiteke erlazio zuzenik ezarri sarreraren prezioaren eta bisitari-kopuruaren artean. Hain zuzen, doako sarrera duten museoek eta bildumek bisitarien %16,4 bakarrik bereganatu dituzte, eta gainerako %83,6 museo eta bilduma tarifadunek.
- Bestalde, web-orria edukitzea benetan lagungarria da bisitariak erakartzeko orduan, izan ere, museo-espazioen publizitatea egiten da bertan. Museo eta bilduma bat bisitatu duten pertsonen %94,6k web-orria duten museo edo bildumak aukeratu dituzte.
- Museo edo museo-bilduma bakoitzak erakarritako bisitari-kopurua altuagoa da nabarmen Bizkaian. Horrela, Gipuzkoako kopurua bikoiztu da Bizkaian, eta Arabakoa laukoiztera iritsi da.
- Beste alde batetik, bisitarien %31,2 turista atzerritarrak dira (724.717 2004an). Lurraldeka, bereziki azpimarragarria da Bizkaian izandako bisitarien ia erdia atzerritarrak direla (%46,3), eta askoz baxuagoak dira Gipuzkoan (%17,9) eta, batez ere, Araban (%2,2) lortutako portzentajeak.

6. ERAKUSKETAK ETA BESTE HAINBAT JARDUERA

6.1. Erakusketak eta beste hainbat jarduera

Museo eta bildumen %74,4an inauguratu dira erakusketak 2004an. Portzentaje horrek behera egiten du museo etnografiko eta antropologikoetan (%66,7) eta zientzia eta teknologiako museoetan (%50). Museo espezializatuetan, aitzitik, batez besteko orokorra gainditu da (%88,9). Gainerako tipologietan ez da mota honetako erakusketarik egin.

Bestelako museo-jarduerei dagokienez, ondoren adierazi dira daturik azpimarragarrienak:

- Inkestan parte hartu duten erakundeen %76,7k garatzen dituzte museo-jarduerak. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da portzentaje hori hain altua izanik, oraindik oso baxua dela jarduera horiek burutzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiei ematen zaien erabilera. Museo eta bildumen %20,9k bakarrik erabiltzen dute web-a hezkuntza-jarduerak garatzeko.

- Hitzaldiek (museoen %44,2), ikastaro, mintegi edo jardunaldiek (%30,2), proiektzioek (%27,9) eta, batez ere kontzertuek (%14), ez dute agerpen handia euskal museo eta bildumetan.

Hezkuntza-jarduerak garatzen dituzten museoen artean, garrantzi berezia ematen zaio haurren taldeari: mota horretako jarduerak garatzen dituzten hamar museoren artetik bederatzitan haurrak dira jardueren xede nagusia.

Museo eta bildumen %74,4an inauguratu dira erakusketak 2004an. Portzentaje horrek behera egiten du museo etnografiko eta antropologikoetan (%66,7) eta zientzia eta teknologiako museoetan (%50). Museo espezializatuetan, aitzitik, batez besteko orokorra gainditu da (%88,9)

Ezintasunak dituzten pertsonak eta gutxiengo etnikoak, aitzitik, gutxiago hartzen dira kontuan. Hain zuzen, museo eta bilduma guztien artetik %33,3k bakarrik garatzen dituzte ezintasunak dituzten pertsonentzako jarduerak, eta %24,5 dira gutxiengo etnikoentzako jarduerak garatzen dituztenak.

6.2. Argitalpenak

2004an egin diren argitalpenen eta museo eta bildumetan eskuragarri dauden argitalpenen artean be-reizketa egin behar da. Hamar museo eta bildumen artetik lau inguruk egin dituzte ikasmaterialaren eta za-balkunde-materialaren argitalpenak. Hamar museoren artetik hiruk egiten dute gida eta katalogo zientifiko- edizioa eta gutxiago dira aldiroko argitalpenak egiten dituztenak. Bestalde, gida eta ikasmaterial gehiago es- kaintzen da gainerako materialak eta argitalpenak baino.

7. GIZA BALIABIDEAK

Museo eta bildumetako langileei dagokienez, hainbat adierazleren arabera azterketa egin da eta museo eta bildumen tipologiak bereizi dira. Langileen lan-harremana eta lanbide-kategoriak hartu dira kontuan.

7.1. Lan-harremana

EAEko museo eta bildumetan lan egiten duten giza baliabide gehienak langile ordainduak dira. Gainera, asko dira kontratu finkoa duten langileak (%82,4). Aldi baterako kontratua duten langile ordainduak, azkenik %12,5 dira.

Tipologiaren arabera azterketa zehatzago bat eginez, honakoa azpimarra daiteke:

- Museo arkeologikoak, arte garaikideko museoak, arte ederren museoak, natur zientzienak, tokiko museoak eta museo orokorrak aztertuz, lan-kontratuko langile ordainduak bakarrik daude (ez dira boluntarioak kon- tuan hartu).
- Aldi baterako kontratazioa gehiagotan agertzen da museo espezializatuetan (%44,4), tokiko museoetan (%25) eta zientzia eta teknologiako museoetan (%20,9).
- Langile boluntarioei dagokienez, bereziki azpimarragarria da giza baliabideen guztizkoaren %20,7 direla bo- luntarioak. Dena den, ezin da ahaztu langile boluntario horien artetik %93 inguru Trenbidearen Euskal Mu- seoan (60 lagun) eta Guggenheim Museoan (54 lagun) daudela.

Hamar museo eta bildumen artetik lau inguruk egin dituzte ikasmaterialaren eta zabalkunde-materialaren argitalpenak. Hamar museoren artetik hiruk egiten dute gida eta katalogo zientifiko- edizioa eta gutxiago dira aldiroko argitalpenak egiten dituztenak

7.2. Lanbide-kategoria

Langile teknikoak gailentzen zaizkie gainerako lanbide-kategoriari. Hain zuzen, langile guztien %36,6 langile teknikoak dira. Administrazioko langileen pisu erlatiboa, halaber, handia da, nahiz eta ez den lehenengoen mailara iristen (%21,7).

Mantentze-lanetako eta garbiketa-lanetako langileak (%18) eta segurtasuneko langileak (%9,4) gutxiago dira, gehienak azpikontratatu egiten baitira.

Langileen generoaren araberako azterketari dagokionez, gizonezkoak baino zertxobait gehiago dira emakumezkoak (%57,3 eta %42,7 hurrenez hurren). Hala ere, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke lanbide-kategoriari erreparatzen bazaio:

- Gehiago dira gizonezkoak mantentze-lanetan eta garbiketa-lanetan, bai eta zaintza- eta segurtasun-lanetan ere (hiru laurden inguru gizonezkoak dira).
- Aitzitik, langile teknikoen artean (%65,6) eta administrazioko langileen artean batez ere (%82,2), gehiago dira emakumezkoak.
- Zuzendaritza-karguen artean gauzak nahiko orekatuta daude, nahiz eta gizonezko gehiago egon.

Museo eta bildumetan lan egiten duten langile guztien artetik %64,4k lanaldi osoa dute. Mantentze-lanetako eta garbiketako langileek bakarrik dute lanaldi partzialeko kontratua.

7.3. Bekadunak eta praktiketako ikasleak

Lehen aipatutako lan-kontratuko langileez gain (ordainduak/ez ordainduak), museo eta bildumen %53,5ek praktiketako ikasleak edo bekadunak kontratatu dituzte.

Praktiketako ikasle gehienak Bilboko Guggenheim Museoak (70 bekadun, guztizkoaren %39,8) eta Artium museoak kontratatutakoak dira (36 bekadun, guztizkoaren %20,5).

8. Kontratutako zerbitzuak

2004an zerbitzu orokorren azpikontratazioa egin zen nagusiki, hala nola garbiketa (%58,1), segurtasuna (%44,2) edo mantentze-lanak (%37,2). Aitzitik, gutxiago kontratatu dira museoen jardunarekin erlazio zuzenagoa duten berariazko zerbitzuak, besteak beste kontserbazioa (%9,3) eta dokumentazioa (%18,6).

Langile teknikoak gailentzen zaizkie gainerako lanbide-kategoriari. Hain zuzen, langile guztien %36,6 langile teknikoak dira. Administrazioko langileen pisu erlatiboa, halaber, handia da, nahiz eta ez den lehenengoen mailara iristen (%21,7)



kulturabehatokia@ej-gv.es